

Eusko jaurlaritzak martxoaren 12ko grebarako inposatutako gutxieneko zerbitzuak epaitegietara eraman dituzte sindikatuek

Jaurlaritzaren gutxieneko zerbitzuaren aginduak milaka langile greba eskubiderik gabe uztea du helburu

Horretaz gain sindikatuek salatu nahi dute Eusko jaurlaritzak greba bezperan argitaratu duela agindua greba eskubidearen urraketen aurrean, hauen aurkako bide juridikoa oztopatzeko

Martxoaren 12ko greba eguna Otsailaren 13an egin genuen publiko ELA, LAB, CCOO, STEILAS eta ESK sindikatuok. Greba erregistro formala orain dela hamabi egun, zehazki otsailaren 29an.

Eusko Jaurlaritzako Lan Delegaritzak gutxieneko zerbitzuen inguruko agindua martxoaren 8an argitaratu eta jakinarazi du. Greba deialdia publiko egin genuenetik hilabete igaro da eta formalki erregistratu genuenetik 8 egunetara. Agindua Ostiral batean eta greba egunaren bezperan argitaratu du beraz, lan egunei erreparatzen badiegu. Hau gainera langileon ordezkari eta grebaren deitzaile garen sindikatuok inolako aurretiazko bilerarik edota kontrasterik egin gabe.

Portaera hau ohiko bihurtu da Lan delegaritzarentzat. Zerbitzu minimoen aginduak greba egunen bezperetan argitaratzen ditu sistematikoki, eta garai batean sindikatu deitzaile eta administrazioekin gauzatzen zen audentzia fasea gauzatu gabe.

Martxoaren 12rako aginduak, urrian eta abenduan egindako greba egunetarako ezarritakoak baino zerbitzu minimo handiagoak ezarri ditu, arrazoibide eta motibazio nahikorik azaldu gabe.

Sindikatuok Larunbatean aurkeztu genuen aginduaren aurkako demanda EAeko Auzitegi Nagusiaren aurrean, eta bertan neurri kautelar gisa agindua bertan behera uzteko eskaera gauzatu genuen milaka langileri greba egiteko eskubidea ez ukatzeko. Auzitegiak, greba egunaren aurretik epaia ez aurreratzea erabaki du, greba eskubidearen urraketaren inguruko erabakia prozesu guztia gauzatuak ematea ebatziz.

Sindikatuok salatu nahi dugu greba eskubidearen aurkako urraketen aurka bide juridikoa edota bestelako ekintzak gauzatzeko aukerak zapuztea eta gero eta langile gehiago greba eskubiderik gabe uzteko asmoa dagoela jarrera honen atzean.

Izan ere, Zerbitzu minimoen aginduetan gero eta zerbitzu minimo handiagoak ezartzen doa Jaurlaritza poliki poliki; greba eskubidea hustuz eta langile publiko gero eta gehiago grebarako eskubide gabe utziz. Osakidetza edo hezkuntza bezalako sektoreetan gutxieneko zerbitzuek milaka langile greba eskubide gabe uzten ditu, lan egun arruntetan lanean dagoen langile kopurua bermatzen ez duen bitartean, greba egunetarako langileen 100%a lanera joatera behartuz gutxieneko zerbitzu gisa. Martxoaren 12ko grebari dagokionez, pauso bat gehiago eman du Jaurlaritzak greba eskubideraen urraketa honetan eta hezkuntza publikoko hezitzaile guztiak greba eskubiderik gabe utzi nahi ditu.

Euskal Herrian 2024ko martxoaren 11an



Los sindicatos llevan a los tribunales los servicios mínimos impuestos por el Gobierno Vasco para la huelga del 12 de marzo

La orden de servicios mínimos del Gobierno busca dejar sin derecho a la huelga a miles de trabajadores y trabajadoras

Además, los sindicatos denuncian que el Gobierno Vasco ha hecho pública la orden en vísperas de la huelga para obstaculizar la eventual vía jurídica contra la misma

Fue el 13 de febrero cuando los sindicatos ELA, LAB, CCOO, STEILAS y ESK hicimos Pública la jornada de huelga del 12 de marzo para todo el sector público de la CAPV. Registramos formalmente la huelga hace doce días, concretamente el 29 de febrero.

La Delegación de Trabajo del Gobierno Vasco ha publicado y notificado la orden de servicios mínimos el 8 de marzo. Ha pasado un mes desde que hicimos pública la convocatoria de huelga y 8 días desde que la registramos formalmente. La orden la ha publicado un viernes y en vísperas de la jornada de huelga, si atendemos a los días hábiles. Esto además sin ninguna reunión previa ni contraste con los sindicatos que representamos a los y las trabajadoras y convocamos la huelga.

Este comportamiento se ha convertido en habitual para la delegación de Trabajo. Publica sistemáticamente las órdenes de servicios mínimos en vísperas de los días de huelga y sin llevar a cabo la fase de audiencia previa que antaño se materializaba con los sindicatos convocantes y las administraciones. La orden para el 12 de marzo establece unos servicios mínimos superiores a los establecidos para las jornadas de huelga de octubre y diciembre, sin exponer razonamientos ni motivaciones suficientes.

El Sábado, los sindicatos presentamos una demanda contra la orden ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en la que solicitamos la suspensión de la misma como medida cautelar para evitar dejar sin derecho a la huelga a miles de trabajadores y trabajadoras. El tribunal ha decidido no adelantar la sentencia antes de la jornada de huelga, resolviendo que la decisión sobre la vulneración del derecho a la huelga se produzca una vez que se haya llevado a cabo todo el proceso judicial.

Los sindicatos queremos denunciar que con esta actitud, el Gobierno pretende obstaculizar la utilización de la vía jurídica y/o la posibilidad de llevar a cabo otro tipo de acciones frente a las vulneraciones del derecho de huelga y dejar a un mayor número de trabajadoras y trabajadores sin opción a ejercer su derecho a la huelga.

Y es que el Gobierno Vasco está imponiendo paulatinamente unos servicios mínimos cada vez mayores, vaciando de contenido el derecho a la huelga y dejando a los trabajadores y trabajadoras públicos/as cada vez más privados y privadas del derecho a la huelga. En sectores como Osakidetza o Educación los servicios mínimos dejan sin derecho a huelga a miles de trabajadores y trabajadoras; obligan a acudir a trabajar al 100% de las trabajadoras como servicio mínimo mientras en el día a día no se garantiza ese personal. En cuanto a la huelga del 12 de marzo, el Gobierno Vasco ha dado un paso más en esta vulneración del derecho de huelga y pretende dejar sin derecho a huelga a todas las especialistas de apoyo educativo de la educación pública.

